

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak modu onean funtziona dezan, hainbat baliabide gauzatukoditugu. Horien artean, hauek aurkitu ditzakegu:

- **Baliabide fisikoak:** Gure denda fisikoei dagokionez, alde batetik, Euskal Herriko hiri garrantzitsuenetako kanpoaldeetako pabiloi batzuetan kokatuta egongo dira, bestalde, lokal txikiak, hirien erdigunean kokatuta egongo dira. Lehengoan armairu ezberdinak ikusteko eta erosteko aukerak izango dituzte bezeroek. Hortaz, armairuetako piezak erosi ditzakete. Bigarren aukeran, armairuen xehetasunak begiratu ahalko dituzte eta jada armairu bat badute eta honek akatsen bat izango balu, konpontzeko laguntza eskatu dezake
- **Giza Baliabideak:** Enpresa kooperatiba bat garenez, jabeak izan arren, bertan lana egiten dugu. Hala ere, lana gure kabuz ezin dugunez egin, langileak kontratatuko ditugu. Alde batetik, lan intelektualak gauzatzeko, pertsona adituak kontratatuko ditugu, adibidez informatikoak eta diseinatzaileak. Bestalde, lan fisikoak egiteko langileak ere behar ditugu, adibidez, armairuak muntatzeko eta margotzeko. Horretarako, ikasketak ez ditugu hainbeste kontuan hartuko, baizik eta jardungo duten espezialitatean praktikak izatea.